




IPIa %1,9 handitu zen maiatzean urte arteko tasan

Industria produkzioaren indizea (IPI)

Urte bakoitzeko maiatza




Iturria: Eustat.

Eustatek berriki argitaratu duen informazioaren arabera, **maiatzean EAEko industria produkzioa %1,9 gehitu zen, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta**. Gehikuntza hori ekipamendurako ondasunek eragin zuten, %11,9 hazi baitziren, eta badirudi suspertu egin direla. Beste muturrean, energiaren ekoizpena %24,6 murriztu zen.

Gizarte Segurantzako afiliazioa berriro igo da

Gizarte Segurantzako afiliazioa

Urte bakoitzeko ekaina. Milakoak



Iturria: Gizarte Segurantza.


Gizarte Segurantzaren datuen arabera, **ekainean, EAEko afiliazioa %0,9 igo zen aurreko urteko hileko beraren aldean**. Ekain batean inoiz erregistratu den kopururik handiena da, 1.029.145 afiliatorekin. Aurreko hilabeteetan bezala, emakumeen hazkundera izan zen nagusi (%1,0), gizonek izandako hazkundera gaituta (%0,8).



Langabezia erregistratua %2,3 jaitsi zen hiruhilekoan

Langabezia erregistratua

Urte bakoitzeko bigarren hiruhilekoa. Milakoak




Iturria: Lanbide.

EAEn erregistratutako langabeziaren hiruhilekoko batez bestekoa %2,3 egin du behera 2024ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta bost urtez jarraian egin du behera. Batez besteko hori 105.000 pertsonara iritsi zen; horietatik ia 61.000 emakumeak ziren eta 44.000 gizonak. Langabezia erregistratuaren jaitsiera pixka bat txikiagoa izan da emakumeentzat (-%2,2) gizonentzat baino (-%2,5).

Lan kontratuen kopurua %7,8 hazi zen

EAEn sinatutako lan kontratuak

Urte bakoitzeko ekaina. Milakoak



Iturria: SEPE.

Ekainean kontratazioa %7,8 areagotu zen EAEn aurreko urteko aldi beraren aldean. Kontratuen kopurua 75.000 baino gehiagokoa izan zen, eta kopuru hori nabarmentzekoa da, uste bada kontratazio eredua eraldatu zuen 2022ko lan erreformaz geroztik, hilabete bakoitzean askoz kontratu gutxiago sinatzen direla. Kontratu mugabeak kontratazio osoaren antze-
ra hazi dira (urte arteko %7,6).